

**EUDEL-EN ZIRKULARRA. % 0,5EKO
ORDAINSARI IGOERA OSAGARRIA,
2024.01.01ETIK AURRERAKO
ONDORIOEKIN**

EUDELeK 2024ko ekainaren 27an bidalitako 2024ko ekitaldirako Ordainsari-igoerei buruzko zirkularraren jarraipen gisa, honako hau jakinarazten dizuegu:

Ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri ematen dituenak eta zergen, energiaren eta gizartearen arloko premiazko neurriak hartzen dituenak, honela dio 6.2 artikuluan:

"2. – 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatuko zaie, hala badagokio, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei, baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPIHren aldaketaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-igoera finko metatua gainditzen badu.

Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024ko KPIHren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da."

Estatistikako Institutu Nazionalak, 2025eko urtarrilaren 15ean, 2022, 2023 eta 2024 urteetako KPIHren aldakuntzaren batura ehuneko 12koa dela ziurtatu du.

Bestalde, 2022, 2023 eta 2024ko ordainsari finko metatua ehuneko 8koa da.

**CIRCULAR DE EUDEL SOBRE EL
INCREMENTO RETRIBUTIVO
COMPLEMENTARIO DEL 0,5% CON
EFECTOS DESDE EL 01.01.2024**

Como continuación a la Circular sobre Incrementos Retributivos para el ejercicio 2024 remitida el 27 de junio de 2024 desde EUDEL, les informamos de lo siguiente:

El artículo 6.2 del Real Decreto-ley 4/2024, de 26 de junio, por el que se prorrogan determinadas medidas para afrontar las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo y se adoptan medidas urgentes en materia fiscal, energética y social establece:

"2.-Asimismo, con efectos de 1 de enero de 2024, se aplicará, en su caso, un incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5 por ciento, respecto a las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2023, si la suma de la variación del IPCA de los años 2022, 2023 y 2024 superara el incremento retributivo fijo acumulado de 2022, 2023 y 2024.

A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE) los datos del IPCA del año 2024, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE."

El Instituto Nacional de Estadística, con fecha 15 de enero de 2025, ha certificado que la suma de la variación del IPCA de los años 2022, 2023 y 2024 es del 12 por ciento.

Por su parte, el incremento retributivo fijo acumulado de 2022, 2023 y 2024 es del 8 por ciento.

<p>Horregatik, aipatutako Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan xedatutakoa betez, Ministro Kontseiluak, 2025eko uztailaren 1eko bileran, erabaki du sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatzea 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei.</p> <p>Erabaki hori uztailaren 1eko PJC/681/2025 Aginduan jasotzen da (BOE 158, 2025eko uztailaren 2koa).</p> <p>Hori guztia ikusita, EUDELek egokitzat jo du honako GOMENDIO hau egitea eta euskal udalei bidaltzea:</p> <p>Ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6. 2 b) artikuluan aurreikusitako sektore publikoko langileen ordainsarien % 0,5eko gehikuntza osagarria onartzea. Dekretu horretan Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri ematen ditu eta zerga, energia eta gizarte arloko premiazko neurriak hartzen ditu.</p> <p>Igoera hori 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.</p> <p>EUDEL, 2025/07/02</p>	<p>Por ello, en cumplimiento de lo dispuesto en el citado artículo 6.2 del Real Decreto-ley, el Consejo de Ministros, en su reunión de 1 de julio de 2025, ha acordado la aplicación de incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5 por ciento de las retribuciones del personal al servicio del sector público respecto a las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2023.</p> <p>Dicho acuerdo se recoge en la Orden PJC/681/2025, de 1 de julio (BOE 158 de 2 de julio de 2025).</p> <p>A la vista de cuanto antecede, se ha considerado oportuno desde EUDEL formular y remitir a los ayuntamientos vascos la siguiente RECOMENDACIÓN:</p> <p>Aprobar el incremento complementario del 0,5% de las retribuciones del personal al servicio del sector público previsto en el artículo 6. 2 b) del Real Decreto-ley 4/2024, de 26 de junio, por el que se prorrogan determinadas medidas para afrontar las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo y se adoptan medidas urgentes en materia fiscal, energética y social,</p> <p>Este incremento se aplicará respecto de las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2023 y con efectos desde el 1 de enero de 2024.</p> <p>EUDEL, 02/07/2025</p>
--	---